

# Hau ere omena da

RAMON ETXEZARRETA



**EZ** dakit beste inon baino areagotu dagoen, baina bai behar baino areagotu dagoen joera dela eztabaida unek baztertzea. Irizti zuzen eta pentsatuazkako aukerak alperrik galtzea eta sentimendu ustelak eta kortesia faltasua erriazoiaren gainean jartzea. Uzurrerren heriotzari komunikabideetan eman zaien tratamenduak eragin dit burutazio hau.

Loria baldin bada hildakoen eguzkia. Balzacek esan zuen bezala, ez da kezakotik Intxausti jauna, baldin eta kexa edo beste gisako sentimenterik posible badu orain. Loriz bete dugu, edo digute, eta ez nago konforme. Nik ukatuko ez diodan arazoiz inork «eta merxi bazuen zergatik ez?» esan badezake ere. Egia da, bere biografia azaletik ez besterik begiratuza ere, ez zela neurri tikiiko gizona. Euskaltzalea eta euskalgintzan aritua, langilea eta lan sindikaletan luzez aritua, politikaria eta politikan lan asko egina, abertzalea eta aberria maiztatu lan asko egina, asko, asko, asko.

Bere lanetan eta egiletan zenbat erratu zuten? Ugartiasunaren arriskutzat jotzea aski dugu. Baina sinestu ezin dudana zera da, neurri hoietako gizon baten bizitzaren edo soslaiaren balantzea egiterakoan agertu den gisako adostasuna auzalzea. Euskal Herri osoa, euskaltzale guztiak, alderdi guztiak, sindikatu guztiak eta irizti guztiak zuzal berekoak izatea, inork taxarik ez ikustea, zereginak inolako balantzatan ez jartzea.

Ondorioz dena gezurra dela sinestera narakte, zeren hilda gero esandakoa baldin badira gure egia bizi zen arren bezas esandako gehienak dira gezurrak, baina biak batera ez da posible. Nere errezela da zenbait eztabaida egin zitekeela eta benetan ikusi eta ikusten ditugunak esan genitzakeela Uzturre zenaren omenari ohore zipitzi lapurtu gabe.

# Hitz arazoak

PIARRRES XARRITTON



«FINEAN, zioen Axular-ek, presuna zaharra, hotz-berotzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen da». Zerbait horrelako gertatzen ari zait naski nihauri. Haserrekortzen ari, zahartzarri. Bai eta minberatzen funtsik batera gabe: hitz arazoak direla-ita. Erran behar dut, hitzekin borrokatzea izan dela egundainotik ene ofizioa, beste batzuentzat zurarekin edo burdinarekin bezala.

Ez zaizkigu bada gatazka beroenak Euskaltzaindikoa hiztegi batzordearen bilkuretan gertatzen, euskalki ezberdinetako kideak elkarretaratzen garelarik euskara batuaren hiztegia antolatu beharrez. Maiztuko gertatzen zait suhartzeta eta «dirakien elteza» bezala irakitan jartzea, ene bulegoan, egunkarian edo telebistan berriak hartzen ari naizelarik. Orduan zaizkit sortzen hitz arazo larrienak.

Hitz batzu badira alabaina, daukaten pitzaren gaina edonork edonon erabiltza keenak, hala nola «miseria», «libertatea» edo «justizia». Beste zenbait aldez enetzat hitz «hantuak» edo «puztuak» dira, batzuek aho-beteko darabilztenak, eta nik «alferrak» deitzen ditudanak.

Haurrak ginelarik «alferrak» deitzen genituen alabaina ala hurrak ala intzurraak ala gaitzainak, bamez hutsak zirelarik. Gaur ohartzan naiz badirela ere hitz «alferrak», deusetako ez direnak, baina hutsa den ipzirituaren ilusitzeko erabiltzen direnak. Pentsamendu antzueren seinale direla daukat. Horra zergatik nauten gehienik berotzen eta minberatzen.

Eta zein diren hitz edo esaldi horiek galdatzen baldin badidazue, bai edo beste emanen dizuet: «aitzinamendua», «sozial demokrazia» edo «ezker abertzalea», adibidez. Besteak zure gain, irakurleak.

# HEMEROTEKA

## ●DEIA

### Gorriak jo gaitu

Euskararen sustapena demokraziaren bidez bakarrik burutu dezakegu. Ezeri indarkeria ezabatzea beharrezkoa bazaio euskarari zaio. Ezer ahulik badugu hizkuntza baitugu. Euskalgintzan diharduten guztiak demokrazi esparrura lehenbaithean erakartzea behar beharrezkoa zaigu, bezar. Eta hori ez da lortuko zenbait talde eta ekinbide gero eta gehiago estutuz. Estutuz, duda antzean dabilzanak ere indarkeriaren zulora bultzatu eta amil arazi besterik ez ditugu egingo. Egia da, euskal kultur-gintza eta euskalgintza gaurregun zer den, hobeto argitu beharra dago. Eginkizunik larrienak zein diren erabaki beharra. Horretan erabiltzen dugun diruari ahal dugun etekinik haundiena ateratu behar diogu.

Horretan denok gaude ados. Elkarrekin bildu, eztabaidatu eta erabakitzeko urratsik ez dugu egiten, ordea. Euskal munduko katramilak askatzen hasi beharra dago euskararen eta demokraziaren onerako: euskalduntze-alfabetatzearen, euskarazko egunkariaren, euskalgintzako taldeen eta abarren inguruan dauden katramilak. Euskal baratzat hondatzen eta jendea kiskaltzen eta demokra-



—Errepublikako presidentek proposatuta Magistraturako Goi Kontseiluaren erreforma onartu egin da. Magistraturaren independentzia indartuko atera da». / «Tapias diputatuari bere irizkinen barret egiteari uztako eskatuko nioke».

ITURRIA / SUD OUEST

ziarentzat ere gaitzen ari gintezke.

M. ATXAGA

## ●LAVANGUARDIA

### Beste atzerapen bat Maastrichtentzat

Lord Rees Mogg-en errekurtsioa arrakastatsua gertatu zaie euroseptikoko kontserbadoreei. Azken hauek gogor saiatzen ari ziren Maastrichteko berrespena galarazten eta aurreko astean jipoi ederra hartu zuten. Lord-en Ganbarak beraien erreferendum eskaera ukatzean. Dena dela, itunaren aurkakoen—Margaret Thatcher

dugu hauetakoa bat, honela torv-en buru izango dena ere zigortu nahiz-iburgogortasunak erakusten digu, behin eta berriz, europar ideia honek Britainia Handian eragozpen bereziak dituela. Hauek dira, hain zuzen ere, lehendabiziko itun europarrak—CECA (Europako Ikatz eta Altzairu Elkarteak), Euratom (Europako Atomo Energiaren Elkarteak) eta EK (Europako elkarteak)—ez sinatzeko benetako arrazoiak. Eta, noski, ezetzortasun ekonomikoa ezaugarri duen garai honetan, ez da batere harigarria berriro ere britainiarren erretizientziak agertzea, erretizientzia hauek historikoki kontserbadore eta laboristen-

gan eragin handia izan baitute. **JUAN TAPIAS**

## ●EL PAIS

### Katalanera

Katalaneraz mintzatzen ez diren —no raonen catalá— ikasle eta irakasleak atzeraka ari dira Katalunian: Generalitatearen aginduz hurrengo ikasturtean ikasitxeetan katalanera bakarrik erabiliko da. Generalitateak eramanagaitza bihurtzen du milaka herritarren bizitza, inoiz ere termino bazerizaitelan planteatu beharko ez litzatekeen hizkuntz arazoak gaizkoatuz.

Baina historiaren joana aldaezina da, guk jaso dugun errealtate bat finatu du eta XIII. mendez geroztik gaztelera hizkuntza ofiziala da, erresumako biztanleen mintzaira komuna. Eta oraintxe bertan, Estatu demokratiko baten partidez direnean horren garpenerako laguntza emanetz, ezin uztizko eskubidea dute irakaskuntza beren hizkuntzan jaso eta emateko, edozein delarik ere bizi direnoko komunitateak. Eta horixe eragozten du Generalitateak. Estatuaren arautzen duten printzipio konstituzionalen aurka. Jakina, baliteke Estatuaren kontzeptu bera izatea auzitan jartzen ari dena. Eta hori oso kontuan hartzeko gauza litzateke.

JOAQUIN VIDAL

# ZUZENDARIARI

## Kubari elkartasunik ez

Abuztuan, Kubara, Askapenak antolatuturiko lan brigada boluntario batetan parte hartuz joango naizen astigarragar bat naiz. (Frank Pais, ospitale ortopedikoan elkartasun proiektu bat garatuko dugu).

Guztiok jakin badakigu, Kubak, EEB-Betatik jasaten duen 33 urteko blokeoaren ondorioz (medikuntza eta janaria barne) oso egoera larria sufritzen duela. (Azken aldiko hondamendi naturalak ere kontutan izan behar ditugularik).

Egoera hau dela eta, lan brigada osatzen

dugunok, proiektu hau egiteko beharrezkoak dugun materiala edo dirua, biltzeari ekin diogu, honetarako Euskal Herriko hainbat Udaltexa eta lantegitara jo dugularik.

Jarraian, Astigarragako Udaltexean gertaturikoaren berri ematera pasako naiz, eta batez ere EAKo zinegotzia den Rikardo Arrizabalagaren jarrera eta elkartasun eza salatzerako. (Komisioan izandako eztabaida politikoa baloratzen ez naiz hasiko).

Bere ustetan laguntza ekonomiko bat eman aurretik, hiru galdera eduki behar dira kontuan: Nori?, Zertarako?, eta Nora? (orden honetan). Argi utzi zuen Askape-

nari inoiz ez diola laguntzarik emango, Askapenaren lana politikoa bait da eta ez elkartasuneko. Zinegotziak honek dioenez Askapenako brigadistak Kubara bideko botere politikoari laguntza ematera goaz eta ez elkartasun proiektu bat garatzerako. Honela ba, laguntza guztia ukatu digularik.

Hemendik, brigadista guztien izenean, Rikardok erakutsi duen jarrera anti-demokratikoa gaitzestea bakarrik geratzen zait.

IDOIA ARRIETA

Astigarraga (Gipuzkoa)

# GAIA JARRITA



## Txillardegia

Senperen 'hila' esaten bada Oiarzunen berriz 'hilla', Lizartzan gazte gehienek 'hiya', a ze ahoskera pila. Zuk apostua egiten dezu bateratu baten bila; bateratzeak ez du jeitsiko euskara zahararren maila, eta ikasten ari direnen onerako izan dedila.

JESUS MARI IRAZU



Batzorde Parakidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

**ODJ** OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarie: INARI URIA
Gerentea: FERMIN LAZKANO
Zuzendaria: MARTXELLO OTAMENDI
Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZARRETA
Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUGAGA
Sustapena: NEREA AZURMENDI
Publizitate: MARI JOSE SARASA
Espainiako Publizitate: PUBLICITAS
Capitan Haya 12a 28020 Madrid # 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

**HELBIDEAK**  
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabisaok / 20160 Lasarte-Oria / # 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Egitze soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, In-1 / 20010 Donostia / # 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Araba: San Antso, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iratxe Monasterio, 45-13. esk. / (Iruizki dorreak / 31014 Iruñea / # 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaia: Zabaltzaren Enparantza, 2-1. ezkerrean / 48003 Bilbo / # 410 40 46 Faxa: 410 37 15  
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / # 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 55 11